

Giza eta Gizarte Zientziak Komunikazioaren ikuspegitik: 1990-2015... eta haratago

Xabier Landabidea Urresti
UEUko Komunikazio Saila. Euskal Gaien Institutua, Deustuko Unibertsitatea

Sarrera

Komunikazioaren eremua ez da zehazten erraza, jakintza-esparru eta diziplina bezala gizarte-harreman eta giza jarduera gehienak har baititzake bere baitan. Batzuk aipatzearen, hizkuntza, ondasun material eta ez materialen salerosketa eta elkartrukea, hezkuntza, sormena, ekoizpenaren antolaketa, gizarte-arauen negoziazio eta hertsadura edota masa-komunikabideak aipa daitezke. Gainera, geroz eta zailagoa bihurtzen ari da gure gizarteetan komunikazioa non hasten den eta non amaitzen den ebaztea, informazioz eta komunikabidez geroz eta saturatuago baititugu gure bizileku eta gure bizi-denborak. Zer da komunikazioa? Zer da komunikatzea? Nola azter eta uler genezake komunikazioa? Galderak ez ezik erantzunak ere aldatzen ari zaizkigu etengabe.

Uztaroren 100+ zenbaki honek Komunikazioa Giza eta Gizarte Zientzien alorretik eta Euskal Herritik nola ulertu, aztertu, begiratu, eztabaidatu dugun eta aurrera begira ditugun erronka eta aukerak berrikusteko (g)une egokia eskaintzen du. Artikulu honek ez du noski *Uztaro* aldizkariaren baitan egindako komunikazioaren eremuko lan guztien inguruko azken azterketa izan nahi, ehungarren zenbakiaren aitzakian elkarlan kolektiborako ekarpen eta abiapuntu posible bat baino. Horretarako, orain arte komunikazioaren esparruan *Uztaron* argitaratutako lanak aipatuko ditugu, ondoren horiek marrazten dituzten etorkizunerako lerro batzuk zirriboratu eta *Uztaro* eta euskarazko aldizkariaren ekarpen eta funtzio sozialei buruz zerbait esateko.

Orain artekoak (1993-2015)

1993 eta 2015 urteen artean esplizituki komunikazioaren gaia aipatu duten 93 argitalpen (artikulu, liburu-aipamen eta doktorego-tesien laburpenenak) aztertu ditut. Hasieran esan bezala, komunikazioaren gaia ez da zehazten erraza, eta horregatik

hautatutako argitalpenak izan zitezkeen 98, edo 86, edo 100, eta zenbaki borobilago bat lortu. Interesgarria izango zen zalantzarik gabe egile ezberdinekin hitz egitea haien lana komunikazioaren esparruan edo beste bat(zu)e(t)an ikusten ote zuten galdetzeko, baina halakoetan gertatu ohi den legez denbora mugatua da, eta ez da posible izan. Hala, esan dezaket nire iritziz aukeratako guztiak direla zalantzarik gabe komunikazioaren esparrukoak, baina ez dauden batzuk ere sar litezkeela berrikusketa honetan.

Zenbat diren baino askoz emankorragoa da, hala ere, zertaz aritu diren aztertzea. Oso zaila da noski 25 urte hauetan aldizkarian komunikazioaren inguruan argitara ekarri diren orrialde eta lerro hauetan guztietan esandakoa laburtzea, baina eskema orokor bat proposatzera ausartuko naiz, jakinik eskema hori behin-behineko panoramika moduko bat besterik ez dela.

Azterketa sakonagoek beste klasifikazio modu aberats eta sistematikoagoak ahalbidetuko lituzketen arren, urte hauetan komunikazioa ikergai izan duten lanak lau talde tematiko zabaletan bana daitezkeela uste dut: *Komunikabideak*, *Kazetaritza eta lan-mundua*, *Industria eta kultura*, eta *Komunikazioa, gizarte-komunikazioa eta masa-komunikazioa*.

Komunikabideak

Komunikabideen taldea da, nabarmen, talde tematikorik populatuena, zabalena eta pluralena. Talde nagusiaren azpian gainera ekarpen ezberdinak argi samar bereizten dira ardura espezifikoagoetan (haien artean lotura nabarmen eta emankorrak agerikoak diren arren): prentsa idatzia, irratia, telebista, zinema, Internet eta sare sozialak, tokian tokiko komunikabideak, publizitatea eta albistegintza.

Garapen handiena prentsa idatziaren esparruak jaso du *Uztaron* hamabost lanekin: «Zurrumurruen mekanismoak: Argelgo mahaiaren kasua» (Gonzalez Abrisketa, 1991), «EEBBetako kazeta azterketa» (Armentia, 1992), «PRAVDA eta IZVESTIA sobietar egunkariak» (Basterretxea Polo, 1993), «Prentsa nazionala eta prentsa lokala» (Zalakain, 1994), «Euskal Herriko egunkarien irudi berria» (Armentia, 1994), «Emakumearen irudia aldizkari femeninoetan» (Exposito Renedo, 1995), «Euskarazko herri-aldizkariak eta teknologia berriak» (Camacho Markina, 1999), «Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua» (Basterretxea Polo, 2001), «Euskal preso politikoen informazioa Nafarroako egunkarietan» (Castañeda Vallejo, 2001), «Kale-borroka Euskadiko prentsan» (Alonso, Delgado & Etxebarria, 2002), «Euskal gatazka prentsaren portaera eta herritarren iritzia» (Idoyaga Arrospide & Ramírez de la Piscina, 2002), «Euskarazko herri-aldizkarien funtzioak» (Camacho Markina, 2002), «EGUNKARIA itxi dute baina proiektua bizirik dago» (Garaikoetxea, 2003), «Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila» (Aiestaran, 2004) eta «Euskarazko herri prentsaren irakurleen profila aztergai» (Aiestaran Yarza, 2010).

Komunikabideen baitan bigarren azpitaldea telebistarena da: «Euskal Telebista Golkoko gerran» (Martin Sabaris, 1991), «Kable bidezko telebista Hego Euskal Herrian» (Peñafiel Saiz, Zabaleta Urkiola, Agirreazaldegi Berrioabal & Xamardo Gonzalez, 1999), «Tokian tokiko telebistagintzaren programazioa ordainsariak eta

erronkak» (Goenaga, Arrieta & Amillategui, 2003), «Euskal Herriko eskola-gazteak telebistaren katean» (Basterretxea, Idoyaga, Ramírez de la Piscina & Zarandona, 2005), «Telebista-produkzioa» (liburu-aipamena, 2008), «Euskarazko telesailen produkzioaren uzta eta mugen zertzelada» (Astigarraga Agirre, 2011), Amaia Nerekan Umaranen tesiaren laburpena, «Hamaika telebista atsegin dut» (Anduaga Berrotaran & Diaz Bizkarguenaga, 2014), «Nazio-identitatea eta erreferentzialtasuna EiTbn: *Gaur egun* albistegiaren kasua» (Pastor, 2014), Xabier Landabidea Urrestiren tesiaren laburpena eta Amaia Pavon Arrizabalagaren tesiaren laburpena.

Irratiari eskainita, berriz, sei argitalpen bereiz daitezke: «Irratia erronka digitalaren aurrean» (Gutierrez Paz, 2000), «Irratibidearen barrunbean zehar» (liburu aipamena, 2001), «Irratiak eta internet bat eginda, hedabide erraldioen artean» (Gutierrez Paz, 2003), «Irrati modernoaren testuinguru teknologizatua» (Murelaga Ibarra, 2004), «Eskola-irratia komunikabidea tresna pedagogiko bihurtuta» (Gutierrez Paz, 2006) eta «Gogoetak irradi-programazioaren kontzeptuaren inguruan» (Murelaga Ibarra, 2008). Tokiko komunikabideei ere egin izan zaie tarte irradi-telebistaren esparruan: «Tokiko irratia» (Gutierrez Paz, 1996), «Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea» (Gorosarri, 2006) eta «Goiena Komunikazio Taldea tokiko talde multimedia» (Arana Arrieta & Zuberogitia Espilla, 2012).

Zinemari dagokionez hiru lan aipatu behar dira: «Fikzio poliziakoaren logika» (Garcia, 1990), «Julio Medem eta haren unibertsoa» (Sistiaga Poveda, 2011) eta «Koldo Almandozen zinema» (Lazkano Arrillaga, Zubiaur Gorozika & Arroyabe Olaortua, 2013).

Harrizkoa bada ere Internet eta sare sozialei esplizituki bi lan baino ez zaizkie eskaini urte hauetan: «Euskal komunikabideak Interneten» (Diaz Noci & Meso Ayerdi, 1998) eta Koldo Diaz Bizkarguenagaren tesiaren laburpena (2015). Hala ere, gogoratu behar da Anduaga eta Diazek aurretik Hamaika Telebistaren inguruko elkarrekintzak aztertu zituztela Facebook plataforman «Hamaika telebista “atsegin dut”» (Anduaga Berrotaran & Diaz Bizkarguenaga, 2014). Egia da ere Internetek aipatutako beste hedabide guztiak zeharkatzen dituela, eta hala haren azterketa ere transbertsalki burutu dela *Uztaron*.

Antzeko zerbait gertatu da publizitatearekin ere. Bi lan dira esplizituki komunikazio garaikidearen dimentsio hau landu dutenak, «Euskarazko publizitatea prentsan» (Ogiza, 1993) eta «Publizitate Zuzenbidearen egungo egoera» (Iraculis Arregui & Leñena Mendizabal, 2006), baina askoz handiagoa da, noski, argitaratutako lanetan publizitatearen gaiari eskainitako arreta eta ardura.

Irrati, telebista eta idatzizko albistegintzak berak ere talde propio bat merezi du, zazpi lan klabe aurki baititzakegu gai horri eskainita: «Telebista-albistegiak eta errealtatearen errepresentazioa» (Arana, 1992), «Perpaus adjetibalak albisteetako testuetan» (Larrazabal, 1993), «Telebista-albistegiak: diversitas inter pares» (Arana, 1996), «Iraganeko jazoerak zelan hurbildu narrazioan eta albistegietan» (Larrazabal, 1996), Maria Gonzalez Gorosarriren tesiaren laburpena (2012), «Euskarazko albiste-plataforma digital bat sortu euskal Pirinioetan» (Bidegain, Zuberogitia & Egaña, 2015) eta «Idatzizko albisteen ikus-entzunezkotzea» (Deogracias Horrillo, 2015).

Azkenik, azpitaldeetatik kanpo baina Komunikabideak talde tematiko nagusiaren barruan kokatzen dira, baita ere, ikuspegi ezberdinetatik baina perspektiba integratzaileago batetik komunikabideen panorama edota ekosistema aztertu nahi izan dituzten lanak: «Euskal komunikabideetako euskara» (Palazio Arko, 1991), «Iritzi publikoa, iritzi publikatua eta publikoaren iritzia» (Amezaga Albizu, Arana Arrieta, Iturriotz Lauzirika & Martin Sabaris, 1997), «Birmoldaketa digitala» (Peñafiel, 2000), «Ziberguneak: komunikazioguneez haratago» (Palazio Arko, 2000), «Hedabideak eta Euskal Herria, masa-hedabideen eragina arlo intelektualean» (Renteria, 2001), «Drogak eta komunikabideak» (Rekalde, 2004), «Citizen Kane, hedabideak, boterea eta beren mugak» (Xamardo Gonzalez & Zalakain Garaikoetxea, 2005), «Norberarenganako konfiantza eta beldur eszenikoa irrati eta telebistan» (Toral Madariaga, Murelaga Ibarra & Lopez Vidales, 2007), «Ikerketa-bideak konbergentzia mediatikora hurreratzeko» (Larrañaga Zubizarreta, 2008), «Euskarazko hedabideak beste jauzi baterako ordua» eta «Ikus-entzunezkoen itzulpengintza euskaraz» (Zabalondo Loidi, 2013).

Kazetaritza eta lan-mundua

UEUren Kazetaritza Saila egun Komunikazio Saila deitzen da, baina *Uztaroko* argitalpenek nabaria dute kazetagintzarekiko eta kazetarien jarduera profesional eta lan-baldintzekiko ardura historiko eta jarraituaren arrastoa:

«Politikariak-kazetariak: boterearekiko lilura» (Ramírez de la Piscina, 1991), «Kazetarien tipologiarako zenbait ohar» (Azkargorta, 1992), «Exotoponimiazko problemak kazetagintzan» (Azkargorta, 1992), «Kazetari I@na Euskal Herrian» (liburu-aipamena, 1998), «Hurbiltasun-zatidura irrati-telebistako kazetaritzan» (Zabaleta Urkiola, 1995), «Euskal informazio-kazetaritza abertzalea» (Diaz Noci, 1995), «Kazetariak eta formakuntza profesional iraunkorra» (Urteaga, 2001), «Kazetaritzari buruzko lehen doktore-tesia euskaratuta» (Diaz Noci, 2004), «Euskal irrati eta telebistetako kazetarien soslai soziologikoa» (Amurrio & Martin Sabaris, 2006), «Euskarazko hedabideetako profesionalen lan-baldintzen analisisa» (Aiestaran Yarza, 2009), «Kalitate-indizeak euskarazko kazetaritzan» (Aiestaran, Zabalondo & Agirre, 2014) eta «Kazetaritzaren garabideak» (Ramírez de la Piscina, Aiestaran Yarza, Zabalondo Loidi & Agirre Maiora, 2015).

Industria eta kultura

Industria eta kulturaren azpitaldeak, kuantitatiboki txikia izanik, gure behin-behineko klasifikazio honetan leku bat merezi duela uste dut, komunikabideen ekosistemaren gestalt osoa Euskal Herriaren baitan ezezik termino ekonomiko eta industrialetan eta industria kulturalaren parametroetan kokatzen duelako. Begirada hau, beste lan batzuetan aurki daitekeena ez bezalakoa izateaz gain, estrategikoa da lan hauetan, eta azterketa-epearen (1990-2015) hasiera-hasieratik aurki daiteke:

«Industria kulturalaren garapena» (Azpillaga, 1990), «Euskarazko kulturaren geroa Europa Berriaren tenorean» (Apalategi Begiristain, 1992), «Euskarazko kultur industrien lokalizazioa berrikuntza sozialaren ikuspegitik: Martin Ugalde Kultur Parkearen kasua» (Etxezarreta Etxarri & Zendoia Sainz, 2012).

Komunikazioa, masa-komunikazioa eta gizarte-komunikazioa

Azkenik, 25 urte hauetako ibilbidearen berrikusketarekin amaitzeko talde tematikorik teorikoena daukagu, komunikazioaren ezagutza bere horretan lantzen duena bere adiera eta garapen-lerro ezberdinetan, gizarte-komunikaziotik zein semiotikatik, masa-komunikabideen teoriatik zein emozioen teoriatik. Talde honek *Uztaro* aldizkariaren partaideen ardua metodologiko eta azkura epistemologiko eta sentsibilitate teoriko ezberdinen berri ematen digu. Hemen koka ditzakegu ondoko lanak:

«Egia eta egiantzekotasuna» (Azkagorta & Xamardo, 1990), «Herri-mugimenduak eta komunikazio-prozesua» (Azkagorta & Xamardo Gonzalez, 1991), «Komunikabideen eraginari buruzko ikerketa» (Iturriotz Lauzirika, 1991), «Gaurko gazteriaren dibertimenduak irudi bizien metodoaz» (Apalategi Begiristain, 1991), «Semeiotike tekhne» (Erzilla Urizarbarrena, 1994), «Kartel politiko sobietarra (Basterretxea Polo, 1996), «J. Habermas: komunikazioaren aldeko proposamena» (Amezaga Albizu, 1996), «Masa-hedabideen efektuen inguruko zenbait xeheatsun» (Ramírez de la Piscina, 1997), «Komunikabideak eta taldearteko mintzaira» (Garate *et al.*, 1998), «Komunikazioaren eta informazioaren oinarriak» (liburu-aipamena, 1998), «Semiotika eta masa-komunikazioa» (liburu-aipamena, 1998), «Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia» (liburu-aipamena, 1998), «Masa-komunikazioaren funtzio eta pragmatika sozialak identitateen eraikuntzan» (Basterretxea Polo, 1999), «Kultura-aniztasuna eta gizarte-komunikazioa» (liburu-aipamena, 2003), «Komunikazio parte-hartzailea: Memel Xojobal kasua, Chiapas, Mexiko» (Gorostidi Bidaurrezaga, 2005), «Komunikazio emozionala» (Murelaga Ibarra, Toral Madariaga, Garcia Ureta, Monge & Cea Ugarte, 2009) eta «Komunikazio-gardentasuna kooperatiban» (Larrañaga Elorza, 2014).

Aurrera begira

Zer da komunikazioa? Zer da komunikatzea? Nola azter eta uler genezake komunikazioa? Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkariaren 0. zenbaki hartatik hasita eta gaurdaino, 100 eta 100+ zenbaki hauetara modu agerikoagoan edo ezkutukoagoan, muinean edota azalean hor egon diren eta hor jarraitzen duten galderak dira, komunikazioa gizakiaren eta gizartearen funtsean bertan baitago.

25 urteotako berrikusketa arin eta behin-behineko honek zerbait erakusten badu, bi gauza dira: batetik, komunikazioaren auziaren zentraltasuna euskal gizarte garaikidean, eta, bestetik, heldulekuen aniztasuna eta aberastasuna. Komunikazioaren begiradarekin aztertu izan dira eskola, hizkuntza, herri- eta gizarte-mugimenduak, (euskal) kultura, (euskal) kultur industria, botere politikoa, publizitatea, kazetarien lan-baldintzak, itzulpengintza eta bikoizketa, drogak, intelektualen funtzio soziala edota errealitatearen errepresentazioa. Hurbilketen aniztasun horrek komunikazioaren eremua aberasteaz gainera begirada konplexutu, problematizatu eta aurreratzea ahalbidetzen du, benetako diziplina arteko eztabaida inarrosiz jakintza-arloaren (eta sailaren beraren) baitan.

Komunikabideen bateratzea edo konbergentzia aspaldi hasi zen, baina ez da amaitu. Hasieran nioen bezala, gure bizi-denbora eta bizilekuak geroz eta bustiago daude IKT akronimoarekin (Informazio eta Komunikazioaren Teknologia) laburbiltzen ditugun errealitate (ez hain) berri horiekin. Euskara bera ere ekosistema digital berrietan txertatuta dago, eta jada ez zaizkio aski etxea/kalea/eskola esparruen bereizketa klasikoak. Hasierako galdera horiek oraindik indar osoa daukate, baina galdera horiek modu berrietan formulatzen ikasi beharko dugu, urterik urtera ezezik hilabeterik hilabetera bai eta asterik atera ere aldatzen zaizkigun komunikazioaren paisaia hauetan.

Komunikazioaren jakintza-arloa gaur eta bihar, Euskal Herrian, diziplina, eskola eta helduleku askoren arteko joko-eremu dinamikoa izango da. Eta susmoa dut elementurik interesgarri eta berritzaileenak euskaraz pentsatu eta landuko direla datozen urteotan, globalizazioaren zurrumbilo zoroaren baitan perspektiba berria(goa)k eta gurea(goa)k beharko ditugulako mundu aldakor, azeleratu eta mediatikoki saturatu honetan (hauetan) kriterioz jarduteko.

Eta erdigune anitzeko ingurumen dinamiko eta problematiko horren gune interesgarrienetariko bat *Uztaro* aldizkariak izaten jarraituko du. Euskaraz eta oraindik aurkitzeko eta asmatzeko dauzkagun Euskal Herri eta euskal herritarrentzat.

Lehen ehun pausoak emanda daude. Ikustekoak izango dira hurrengo ehunak.

Bibliografia

- Aiestaran, A. (2004): «Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila», *Uztaro*, **49**, 45-57.
- , (2010): «Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai», *Uztaro*, **74**, 59-72.
- Aiestaran, A.; Zabalondo, B. & Agirre, A. (2014): «Kalitate-indizeak euskarazko kazetaritzan», *Uztaro*, **91**, 41-64.
- Alonso, A.A.; Delgado, I.A. & Etxebarria, M.O. (2002): «Kale-borroka Euskadiko prentsan», *Uztaro*, **43**, 87-103.
- Amezaga Albizu, J. (1996): «J. Habermas: komunikazioaren aldeko proposamena», *Uztaro*, **16**, 145-156.
- Amezaga Albizu, J.; Arana Arrieta, E.; Iturriotz Lauzirika, A. & Martin Sabaris, R. (1997): «Iritzi publikoa, iritzi publikatua eta publikoaren iritzia: hedabideen eragina euskal politika-gintzan», *Uztaro*, **22**, 41-57.
- Amurrio, M. & Martin Sabaris, R. (2006): «Euskal irrati eta telebistetako kazetarien soslai soziologikoa», *Uztaro*, **58**, 29-52.
- Anduaga Berroteran, U. & Diaz Bizkarguenaga, K. (2014): «Hamaika Telebista “atsegin dut”: Facebook-eko jarraitzaileen profil eta telebista-gustuen online azterketa», *Uztaro*, **88**, 75-97.
- Apalategi Begiristain, J. (1991): «Gaurko gazteriaren dibertimenduak irudi bizien metodoaz», *Uztaro*, **1**, 139-163.
- , (1992): «Euskarazko kulturaren geroa Europa Berriaren tenorean», *Uztaro*, **4**, 155-162.
- Arana Arrieta, G. & Zuberogoitia Espilla, A. (2012): «Goiena Komunikazio Taldea: tokiko talde multimedia baten kasu-azterketa», *Uztaro*, **83**, 71-89.
- Arana, E. (1992): «Telebista-albistegiak eta errealitatearen errepresentazioa», *Uztaro*, **5**, 47-57.

- , (1996): «Telebista-albistegiak: diversitas inter pares», *Uztaro*, **41**, 54.
- Armentia, J. (1992): «EEBBetako kazeten azterketa», *Uztaro*, **6**, 89-97.
- , (1994): «Euskal Herriko egunkarien irudi berria», *Uztaro*, **11**, 37-46
- Astigarraga Agirre, I. (2011): «Euskarazko telesailen produkzioaren uzta eta mugen zertzelada XXI. mendean: Goenkale saioaren kasu-azterketa», *Uztaro*, **78**, 5-29.
- Azkagorta, A. & Xamardo Gonzalez, N. X. (1991): «Herri-mugimenduak eta komunikazio-prozesua», *Uztaro*, **3**, 77-85.
- eta —————, (1990): «Egia eta egiantzekotasuna: prentsa euskadin (zenbait adibide)», *Uztaro*, **0**, 37-46.
- Azkargorta, A. (1992): «Kazetarien tipologiarako zenbait ohar», *Uztaro*, **6**, 99-109.
- Azpillaga, P. (1990): «Industria kulturalaren garapena», *Uztaro*, **0**, 7-19.
- Basterretxea Polo, J.I. (1993): «PRAVDA eta IZVESTIA sobietar egunkariak: aro baten amaieraren lekuko kazeta-diseinuaren aldaketa 91ko abuztuko estatu-kolpe ahaleginean», *Uztaro*, **8**, 63-91.
- , (1999): «Masa-komunikazioaren funtzio eta pragmatika sozialak identitateen eraikuntzan», *Uztaro*, **39**, 50.
- , (2001): «Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua», *Uztaro*, **39**, 63-74.
- Basterretxea, J.I.; Idoyaga, P.; Ramírez de la Piscina Martínez, T. & Zarandona, E. (2005): «Euskal Herriko eskola-gazteak telebistaren katean», *Uztaro*, **55**, 63-87.
- Bidegain, E.; Zuberogoitia, A. & Egaña, T. (2015): «Euskarazko albiste-plataforma digital bat sortu euskal Pirinioetan: egoera, kezkak eta aukerak», *Uztaro*, **94**, 21-46.
- Camacho Markina, I. (1999): «Euskarazko herri-aldizkariak eta teknologia berriak», *Uztaro*, **31**, 85-100.
- , (2002): «Euskarazko herri-aldizkarien funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian», *Uztaro*, **43**, 67-85.
- Castañeda Vallejo, K. (2001): «Euskal preso politikoen informazioa Nafarroako egunkarietan», *Uztaro*, **38**, 43-58.
- Deogracias Horrillo, M. (2015): «Idatzizko albisteen ikus-entzunezkotzea», *Uztaro*, **95**, 73-96.
- Diaz Noci, J. (1995): «Euskal informazio-kazetaritza abertzalea: Euzkadi eta Euzko 1913-1934», *Uztaro*, **15**, 81-95.
- , (2004): «Kazetaritzari buruzko lehen doktore-tesia, euskaratua», *Uztaro*, **50**, 59-75.
- Diaz Noci, J. & Meso Ayerdi, K. (1998): «Euskal Komunikabideak Interneten», *Uztaro*, **27**, 23-32.
- Erzilla Urizarbarrena, J. M. (1994): «Semeiotike tekhne», *Uztaro*, **10**, 85-94.
- Etzezarreta Etxarri, E. & Zendoia Sainz, J.M. (2012): «Euskarazko kultur industriren lokalizazioa berrikuntza sozialaren ikuspegitik. Martin Ugalde Kultur Parkearen kasua», *Uztaro*, **92**, 5-32.
- Exposito Renedo, M. (1995): «Emakumearen irudia aldizkari femeninoetan», *Uztaro*, **13**, 87-105.
- Garaikoetxea, J. Z. (2003): «Egunkaria itxi dute, baina proiektua bizirik dago», *Uztaro*, **45**, 26-68.
- Garate, J.F.V.; Montes Etxaide, L.G. de; Mendez, E.S.; Erdozia, G.; Usabiaga, B. & Ripalda, N. (1998): «Komunikabideak eta taldearteko mintzaira soslaia: Picassoren *Guernica* Bilboko Guggenheim-era ekartzearen inguruko polemika», *Uztaro*, **24**, 89-101.
- Garcia, E.L. (1990): «Fikzio poliziakoaren logika, gaur eguneko irudian», *Uztaro*, **0**, 47-84.
- Goenaga, P.A.; Arrieta, E.A. & Amillategui, B.N. (2003): «Tokian tokiko telebistagintzaren programazioa, ordainsariak eta erronkak», *Uztaro*, **46**, 61-80.
- Gonzalez Abrisketa, M. (1991): «Zurumurruen mekanismoak. Argelgo mahaiaren kasua», *Uztaro*, **1**, 115-123.
- Gorosarri, M.G. (2006): «Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea», *Uztaro*, **59**, 41-61.

- Gorostidi Bidaurrazaga, I. (2005): «Komunikazio Parte-hartzailea: Melel Xojobal kasua, Chiapas, Mexiko», *Uztaro*, **53**, 31-48.
- Gutierrez Paz, A. (1996): «Tokiko irratia, herri-partaidetasunaren guneak», *Uztaro*, **18**, 41-48.
- , (2000): «Irratia erronka digitalaren aurrean», *Uztaro*, **32**, 35-47.
- , (2003): «Irratiak eta Internet bat eginda, hedabide erraldoien aurrean», *Uztaro*, **47**, 55-66.
- , (2006): «Eskola-irratia, komunikabidea tresna pedagogikoa bihurtuta», *Uztaro*, **56**, 87-106.
- Idoyaga Arrospe, J.V. & Ramírez de la Piscina Martínez, T. (2002): «Euskal gatazka, prentsaren portaera eta herritarren iritzia (1998-2001)», *Uztaro*, **42**, 85-101.
- Iraculis Arregui, N. & Leñena Mendizabal, E. (2006): «Publizitate Zuzenbidearen egungo egoera», *Uztaro*, **57**, 93-104.
- Iturriotz Lauzirika, A. (1991): «Komunikabideen eraginari buruzko ikerketa: ikuspegi historiko bat», *Uztaro*, **3**, 109-122.
- Larrañaga Elorza, A. (2014): «Komunikazio-gardentasuna kooperatiban», *Uztaro*, **89**, 21-37.
- Larrañaga Zubizarreta, J. (2008): «Ikerketa-bideak konbergentzia mediatikora hurreratzeko», *Uztaro*, **64**, 69-81.
- Larrazabal, A.L. (1993): «Perpau adjetibalak albisteetako testuetan», *Uztaro*, **8**, 53-61.
- , (1996): «Iraganeko jazoerak zelan hurbildu narrazioan eta albisteetan», *Uztaro*, **16**, 99-108.
- Lazkano Arrillaga, I.; Zubiaur Gorozika, N.E. & Fernandez de Arroyabe Olaortua, A. (2013): «Koldo Almandozen zinema: iradokizuna ardatz duen zinema libre», *Uztaro*, **86**, 149-166.
- Martin Sabaris, R. (1991): «Euskal Telebista, Golkoko Gerran», *Uztaro*, **69**, 75.
- Murelaga Ibarra, J. (2004): «Irrati modernoaren testuinguru teknologizatua», *Uztaro*, **51**, 65-80.
- , (2008): «Gogoetak irradi-programazioaren kontzeptuaren inguruan. Programaziotik mezura», *Uztaro*, **65**, 21-32.
- Murelaga Ibarra, J.; Toral Madariaga, G.; Garcia Ureta, I.; Monge, B.P. & Cea Ugarte, J.I. (2009): «Komunikazio emozionala: hersturari aurre egiteko komunikatzaileentzako trebakuntza-programa baten efektuak», *Uztaro*, **70**, 65-77.
- Ogiza, J. (1993): «Euskarazko publizitatea prentsan», *Uztaro*, **7**, 97-109.
- Palazio Arko, G.J. (1991): «Euskal komunikabideetako euskara», *Uztaro*, **1**, 105-114.
- , (2000): «Ziberguneak: komunikazioguneez haratago (III. milurtekoko enpresa multimediatikoak)», *Uztaro*, **32**, 49-57.
- Pastor, J.M. (2014): «Nazio-identitatea eta erreferentzialtasuna EITBn: Gaur Egun albistegiaren kasua», *Uztaro*, **90**, 59-74.
- Peñafiel, C. (2000): «Birmoldaketa digitala», *Uztaro*, **32**, 59-68.
- Peñafiel Saiz, C.; Zabaleta Urkiola, I.; Agirreazaldegí Berrioabal, T. & Xamardo Gonzalez, N. (1999): «Kable bidezko telebista Hego Euskal Herrian», *Uztaro*, **28**, 79-88.
- Ramírez de la Piscina Martínez, T. (1997): «Masa-hedabideen efektuen inguruko zenbait xehetasun», *Uztaro*, **21**, 68-78.
- , (1991): «Politikariak-kazetariak: boterearekiko lilura», *Uztaro*, **3**, 87-96.
- Ramírez de la Piscina Martínez, T.; Aiestaran Yarza, A.; Zabalondo Loidi, B. & Agirre Maiora, A. (2015): «Katzetaritzaren garabideak: Kalitatea, berrikuntza eta prestakuntza», *Uztaro*, **93**, 19-42.
- Basterretxea Polo, J.I. (1996): «Kartel politiko sobietarra: propaganda eredu baten azterketa eskripto-ikonikoa», *Uztaro*, **17**, 85-107.
- Rekalde, A. (2004): «Drogak eta komunikabideak. Fenomenoaren eguneroko eszenifikazioa eta irudikapen soziala», *Uztaro*, **50**, 77-87.

- Renteria, A.L. (2001): «Masa hedabideen eragina arlo intelektualean: figura intelektual berrien sorrera dela eta», *Uztaro*, **38**, 59-81.
- Sistiaga Poveda, A. (2011): «Julio Medem eta haren unibertsoa: *Caótica Ana* eta *Habitación en Roma* filmen kasua», *Uztaro*, **79**, 25-47.
- Toral Madariaga, G.; Murelaga Ibarra, J. & Lopez Vidales, N. (2007): «Norberarenganako konfiantza eta beldur eszenikoa irrati eta telebistan», *Uztaro*, **63**, 65-75.
- Urteaga, E. (2001): «Kazetariak eta heziketa profesional iraunkorra», *Uztaro*, **36**, 53-71.
- Xamardo Gonzalez, N. & Zalakain Garaikoetxea, J. (2005): «Citizen Kane, hedabideak, boterea eta beren mugak», *Uztaro*, **52**, 35-74.
- Aiestaran Yarza, A. (2009): «Euskarazko hedabideetako profesionalen lan-baldintzen analisia», *Uztaro*, **69**, 79-101.
- Zabaleta Urkiola, I. (1995): «Hurbiltasun-zatidura irrati-telebistetako kazetaritzan: praktika desegokia», *Uztaro*, **14**, 49-60.
- Zabalondo Loidi, B. (2013): «Ikus-entzunezkoen itzulpengintza euskaraz: bikoizketa lanbide», *Uztaro*, **85**, 73-96.
- Zalakain, J. (1994): «Prensa nazionala eta prentsa lokala», *Uztaro*, **12**, 55-65.

